

BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMA

GAZTE SOLIDARIOAK

1

SARRERA

Herritarrek etxebizitzarako sarbidea edukitzea erronka bilakatu da administrazio publiko guztientzat, herritarren beharrei erantzuna emateko konpromisoa dutelako.

Testuinguru horretan, **Bilboko Udal Etxebizitzak** Bilboko Udalaren tresna aktibo bat da babestutako etxebizitzaren sustapen politika garatzeko. Helburua beharra duten pertsonei etxebizitzarako sarbidea erraztea da; baldintza duinetan, eta, nagusiki, alokairuan. Etxebizitza erosoan parke publiko bat. Handituta eta berrituta, eraginkortasun eta jasangarritasun irizpideen arabera eraikitako etxebizitza berriekin. Pertsona guztientzat irisgarri diren etxebizitzak. Hiriko auzo eta barruti guztietan eraikitako babespeko alokairuko etxebizitzak.

Etxebizitza babestuak Udal Etxebizitzaren higiezinaren parkean integratzen dira, eta gizarte edo ekonomia egoeragatik merkatu librean etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiagoak dituzten kolektiboei zuzenduta daude. Eta kolektibo horren barruan, Udal Etxebizitzak arreta berezia eskaintzen die lehenengo etxebizitzaren bila dabilen gazteei. Kontuan hartu behar da talde horren barruan unibertsitate ikasleek etxebizitzarako sarbidea lortzeko izan ohi dituzten aparteko zailtasunak, nola beren ekonomia eskasiagatik, hala ezegonkortasunagatik. Horrez gain, aldi baterako etxebizitza merkea bilatzen dute, beren prestakuntzak iraun artean eta ahalik eta baldintza onenetan, beren baliabideei egokituta dagoen etxe batean bizitzeko.

Ilde horretan, **Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko** (UPV/EHU) Bizkaiko Campuseko Errektoreordetzak, eta, oro har, UPV/EHU osoak bere oinarritzko helburu gisa ditu ikaslearen ikaskuntza/irakaskuntza (komunitate erantzukizunerako eta gizarte solidaritaterako unibertsitatearen funtzioen barruan) eta ikasleen bizitzarako baldintza material duinak lortzea.

Datu hauetatik abiatuta, 2010ean, **GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMA** jarri zen martxan, UPV/EHUK eta Bilboko Udal Etxebizitzak babestuta, eta **REHABITAT** europar proiektuaren laguntzarekin. Programa horren helburua herritarrei etxebizitza publikoarekin lotutako espazioa eta bizikidetzak hobetzea da, eta xede gisa ditu Otxarkoaga auzoa eta Bilbo Zaharra. Bilboko gazte unibertsitarioen ostatu aukerak hobetzeko ekarpen berri bat egin nahi du, jada beste unibertsitate batzuk erabilitako aukerak praktikan jarrita, eta, horretarako, auzoen eta erkidegoen bizitzan integrazio positiboa eta konstruktiboa edukitzearen truke ikasleei etxebizitzak kostu txikiak eskainta.

GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMAREN HELBURUAK

GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMA Bilboko Udal Etxebizitzak eta UPV/EHUren arteko lankidetzak esperientzia bat da, ikasle unibertsitarioek etxebizitza babestuen sarbiderako baldintza materialak sortzeko, eta, aldi berean, erkidego eta auzoei ekarpen bat egiteko; besteak beste, “Imajinatu Otxarkoaga” eta “Imajinatu zure auzoa” Planetan sartutakoei. Programak honako helburu komun hauek ditu: bertako herritarren gizarte integrazio eta kohesio handiagoa lortzea, etxebizitzan eta espazio komunetan mantentze eta bizikidetzak kultura sustatzea, eta herritarren egitura sozioekonomikoa zehaztea. Programa honako xede hauek zehazten dute:

2

- I. Ikasturteak iraun artean, UPV/EHUko ikasle unibertsitarioei Bilbon udal etxebizitza merke baterako aukera ematea. Etxebizitza beste ikasle batzuekin partekatu beharko dute.
- II. Unibertsitarioen integrazio eta partaidetzaren bidez, auzoko bizitzan kultura herritarra sustatzea, eta, horretarako, balioak eta herritarren bizikidetzarako ohitura normalizatuak partekatzea; nola ohitura sozialak, hala ekojasangarriak.
- III. Otxarkoaga eta Bilbo Zaharra auzoen suspertzean laguntzea, “Imajinatu zure auzoa” eta “Imajinatu Otxarkoaga” Planak aberastuta.
- IV. Auzoak leheneratzeko udal planekin lankidetzan, esku hartze eta normalizazio soziokomunitarioaren alorrean eta herritarren partaidetzaren alorrean, esperientzia profesional bat edukitzea.
- V. Bilboko Udal Etxebizitzak eta UPV/EHUren arteko etorkizuneko lankidetzak aukerak berriak aztertzea.

GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMA HONAKO HAUEK DITU JASOTZAILE

- Graduondoko ikasturteetako UPV/EHUko Bizkaiko Campuseko ikasleak (masterra edo doktoretza).
- UPV/EHUko graduondoko beste ikasle batzuekin partekatzeko alokairuko etxebizitza baten bila dabilzanak.
- Proiektuak xede dituen komunitate proiektuetan eta auzoetako kolektibo ahulen babesean kolaboratzeko prest daudenak.

Egoitza ekonomikoa eskuratzeko plaza bat nahi duten guztientzako oinarritzako baldintza da esku hartze soziokomunitariorako udal planetan kolaboratzeko konpromiso irmoa hartzea; batik bat, auzoaren gizarte egitura dinamizatzeko lanak egiteko.

GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMAN kolaborazioa amaitu ostean, partaidetza ziurtagiri bat emango zaie, betiere, Bizkaiko Etxebizitzak erakundearen eta UPV/EHUREN Jarraipen Batzordeak zehaztutako helburuak modu egokian bete badituzte. Baldintza horien ezaugarriak aurrerago zehaztuko dira.

3

GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMAKO ESKU HARTZE EREMUAK

Programa hau garatzeko aukeratutako Bilboko auzoak Otxarkoaga eta Bilbo Zaharra dira. Bilboko historian auzo enblematikoak dira. XX. mendearen erdialdean, hiri indartsu eta industrialia zela, etorkizun oparo baten bila zebiltzan milaka pertsonen norakoa zen; enplegu edo bizi baldintza hobeen bila etortzen ziren. Eta horrek, noski, apurkako eraldaketa esfortzua eragin du hirigintza, gizarte eta ekonomia arloetan.

Auzo horietan, “Imajinatu Otxarkoaga” eta “Imajinatu zure auzoa” izeneko komunitate planak garatzen ari dira jada. Ekimen horiek herritarren partaidetzan oinarrituta daude, eta gizarte eragileak eta auzoko eragileak inplikaturik daude, auzoen etorkizuna diseinatzeko, bizikidetzaren, azpiegituren bizi kalitatearen eta sustapen ekonomikoaren arloan ekintzak garatzeko. Jarduera horietan, auzotarrek hartu dute parte.

Ekintza ildo horiei jarraiki, gazte solidarioak ardatz dituen Bilboko udal etxebizitza programa berri honen bidez, ekintza eta aukera horiek osatu eta indartu nahi dira, Otxarkoaga eta Bilbo Zaharra auzoak hobetzeko. Programa honen bidez, partaideei **astean 4 ordutik** eta ordutegi akademikotik kanpo honako hauetan parte hartzea proposatzen zaie:

- Bizilagunen erkidegoak antolatze eta dinamizatzeko ekintzak, eta Udal Etxebizitzak proiektuaren esparruan komunitate bizitza normalizatzeko antolatutako ekintza sozial eta ekojasangarriak.
- Bilboko Udaleko Bizikidetzaren Behatokiak zuzendu eta koordinatutako edo “Imajinatu Otxarkoaga” eta “Imajinatu zure auzoa” planen esparruan garatutako ekintzak.
- Auzoan garatzen diren beste jarduera batzuetan inplikatzeko, eta, apurka, emaitzak sistematizatzeko, beste auzo batzuetara hedatu daitezkeen praktika egokiak izan daitezkeen.

GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMARAKO HAUTATUTAKO ETXEBIZITZAK

Programan 45 plaza eskaintzen dira. Programa honetan barne hartutako etxebizitzek honako ezaugarri hauek dituzte:

4

- Partekatuak, banakako gelek.
- Sukaldeaz eta oinarritzko altzariez hornituta.
- Hilean 55 eurotako alokairua (argi eta ur gastuak barne hartu gabe).
- Otxarkoaga auzoko Txostena kalean eta Bilbo Zaharreko Mariaren Bihotza plazan kokatuta daude.

Programaren iraupena eta alokairu baldintzak:

Programak ikasturtearen iraupen berdina izango du, eta hau 2026ko uztailaren 31a baino lehen bukatu beharko da.

GAZTE SOLIDARIOENTZAKO BILBOKO UDAL ETXEBIZITZEN PROGRAMAKO HAUTAKETA PROZESUA

Partaideek bete beharreko baldintzak

- Eskaria UPV/EHUren Bizkaiko campuseko graduondoko ikastaro batean (master edo doktoregoa) matrikulatu edo izena eman duen edozein pertsonak egin ahal du. Hautatutako pertsonak urriaren 1ean egon behar du matrikulatuta. Osterantzean, eskaria ezetsi egingo da.
- Lehenengo ikastaroko kredituen %80a gainditua izan, bi ikasturtetako programa bateko bigarren ikastaroan badago.
- 35 urte baino gutxiago izatea.

5

Kontuan hartuko dira:

- Interes pertsonala eta libre egotea.
- Familiaren egoera ekonomikoa edo egoera ekonomiko pertsonala.
- GKE, Elkarre edo antzekoetan borondatezko lanak edo lan ordainduak egin izana.
- Ikasleak egiten duen graduondokoak eskatutako lan soziokomunitarioen egokitzapenari eman diezaiekeen balio erantsia.

Eskaria aurkezteko lekua

Programan parte hartzeko eskaerak aurkeztuko dira, ahal dela, modu telematikoan, Bizkaiko Campuseko web orrian dagoen eskariaren bidez (<https://www.ehu.eus/eu/web/bizkaia/campusaren-deialdiak>).

Halaber, eta salbuespen moduan, eskaerak paperean aurkeztu ahalko dira erregistro bulego hauetako batean:

- Errektoregoaren Eraikina. Sarriena auzoa, z.g. 48940 Leioa.
- Informazio eta Erregistro Bulegoa, Larrako Etxea, Agirre Lehendakariaren etorbidea 83 (Sarriko) 48015 Bilbo.

Eskaria posta bulegoetan aurkezten duten interesatuek 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikulua zehazten duen moduan egin beharko dute.

Eskariak aurkezteko epea

Eskariak aurkeztu ahal izango dira **2025eko ekainaren 23tik uztailaren 20ra** bitartean. Behin-behineko ebazpena iraileko lehenengo astean argitaratuko da eta emandako plazak behin

betiko bilakatuko dira urriaren hasieran, kontratua sinatzen denean. Gogoan izan, kontratuaren sinatzeko, matrikula formalizatuta egon behar dela.

Eskaerak aurkezteko aplikazioa irekita egongo da abenduak 15raino eta lehen deialdian aurkeztutako eskaerekin egon daitezkeen hutsuneak ez badira betetzen, uztailak 15 ostean jasotako eskaerekin beteko dira.

6

Hautaketa eta jarraipen batzordea

Programan parte hartuko duten pertsonen aukeraketa UPV/EHuren eta Udal Etxebizitzak erakundearen arteko batzorde misto batek egingo du:

UPV/EHUko 2 ordezkari

Udal Etxebizitzak erakundeko 2 ordezkari

Horrez gain, programan zehaztutako partaideen eskubide eta betebeharren betetzea bermatzea izango da batzorde horren eginkizuna, eta, hala badagokio, UPV/EHUri eta Udal Etxebizitzak erakundeari programa modu egokian garatzeko aldaketak proposatzea.

Programako hautaketa eta jarraipen batzordeak elkarrizketa pertsonalizatua egin ahal izango du, berori nahitaezkoa izanik.

*Eskaerak paperean aurkezten badira dokumentu hauek erantsi behar dira:

- Eskaera sinatuta (inprimaki hau <https://www.ehu.eus/es/web/bizkaia/campusaren-deialdiak> webgunean eskura daiteke)
- NAN edo pasaportea
- Curriculum.
- Erroldatze ziurtagiria
- Galdetegia (inprimaki hau <https://www.ehu.eus/es/web/bizkaia/campusaren-deialdiak> webgunean eskura daiteke)
- Diru sarrerak (bat hauen artean):
 - Azken urteko errenta aitortpenaren (PFEZ) fotokopia
 - Nomina bidez jasotako diru sarreraren fotokopia
 - Ogasun Sailaren ziurtagiri negatiboa
 - Aurrekoetako baten bat aurkezterik ez badago, diru sarreraren zinpeko deklarazioa
 - Beka eman izanaren eta diru zenbatekoaren fotokopia, bekarik izan bada
 - Guraso(ar)en PFEZen fotokopia, eskatzailea horren/horien mende dagoenean.
- Egiten ari den graduondoko programa.